

EUSKARA GOI MAILA (B2) : EBALUAZIOA

EBALUAZIOA

Azken ebaluazioa **helburu espezifik**oetan aipatutako gaitasun-mailei buruzkoa da: gaitasun pragmatikoa, soziolinguistikoa, linguistikoa eta estrategikoa. Ahozko eta idatzizko ulermen nahiz adierazpen komunikazio-jardueretan islatzen da gaitasun-maila.

GOI MAILA 1

Ahozko eta idatzizko elkarreragina

- Gai eta egoera askoren inguruan eraginkortasunez elkarreragitea; jarioaz, zehaztasunez eta naturaltasunez, solaskideari naturala egin dakion eta jarrera berezia ez diezaion eskatu.
- Solasaldietan, eztabaidetan, transakzioetan eta elkarrizketetan norbere ikuspuntuaren alde egitea, behar bezala azalduz eta argudiatuz, eta era berean gertaeren eta esperientzien garrantzia pertsonala azpimarratuz.
- Beste berba-lagun batzuekin posta-trukea egitea; berriak eta iritziak kontatuz eta, egoeraren arabera, sentimenduak, informazioa eta emozioak adieraziz.

Ahozko ulermena

- Ideia eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzea, helburu komunikatiboak zeintzuk diren jakitea, informazio egokia aukeratzea (solasaldietatik, ohar zehaztatetik, albisteetatik, narrazioetatik, gai baten aurkezpenetik, eztabaidetatik nahiz elkarrizketetatik). Gaiak, betiere, orokorrak eta euren espezialitatekoak izango dira; erregistroak, aldiz, estandarrak eta formalak zein informalak. Entzungaiak berriz entzuteko aukera eta zalantzak argitzeko aukera izango dute.
- Gai orokorreari buruzko grabazioetako informazioaren edukia (argi eta modu estandarrean ahoskatuta) ulertzea. Hizkuntza estandarra darabilten telebista-programak izango dira: interes pertsonalekoak, elkarrizketak, hitzaldiak, konferentziak, albistegiak eta filmak.

Idatzizko ulermena

- Hainbat testu mota nahikoa autonomiaz irakurtzea, hainbat gauza antzemanaz: komunikazio-helburuak, oinarriko informazioa, puntu garrantzitsuenak, puntu osagarriak eta argumentuaren haria.
- Jatorri desberdineko informazioa, ideiak eta iritziak erraz aukeratzea.

Mintzamena

- Kohesiodun testuak sortzea, testu argiak eta komunikazio-helbururako egokiak direnak. Informatzeko; kontatzeko; esperientziak, sentimenduak eta gertaerak deskribatzeko; gai bat azaltzeko; ideiak defendatzeko eta zabalago azaltzeko, gauza osagarrien eta adibide argigarrien bitartez.
- Segurtasunez, zehaztasunez eta nahiko zuzen mintzatzea; eritmo erregularrez eta ondo ahoskatuz.
- Baliabide linguistiko ugari erabiltzea; testu zehatzak, argiak eta kohesiodunak sortzeko. Funtzioak eta gaiak ugari izango dira. Hiztunak jartotasunez hitz egin beharko du, zalantzak ez zaizkio igarri behar eta gauzak ez ditu sarri errepikatu behar, nahiz eta egitura konplexuak erabiltzerakoan akats batzuk izan (akats horiek ez dute komunikazioa oztopatuko). Ohikoak ez diren egoeretan akats "iraunkorrak" egin ditzake.

Ebaluaziorako honako **irizpide** hauek erabiliko dira:

Ahozko adierazpena eta elkarreragina

1. *Komunikazio-eraginkortasuna: etorria eta naturaltasuna du hitz egiterakoan, ia etenik egin gabe mintzatzen da hitzak eta egiturak bilatzeko. Lanaren arabera komunikatzen da eta funtzioak betetzen ditu.*

Gai askori buruz jarioz gertatzen hitz egiten du. Edukia argia da eta funtzioak betetzen ditu. Egoera –formala nahiz informala– ezagutzen du eta hainbat gauzataraz egokitzen da: tratamendura, kortesiara, jarretara, keinuetara, informazio motara eta informazio neurriera, hartzailerara, helburura eta tokira.

2. *Diskurtsorako gaitasuna: partehartzea eta lankidetzak; ondo antolatutako, kohesionatutako eta garatutako ideiak eta argumentuak.*

- *Elkarreragina: partehartzea eta lankidetzak.*

Ohiko eta ezohiko eztabaidetan parte hartzen du eta solaskidea inplikatu egiten du. Bere iritzia eskaini, azaldu eta defendatu egiten ditu, proposamen alternatiboak ebaluatu egiten ditu, hipotesiak botatu egiten ditu eta erantzuna ematen die hipotesiei. Bere espezialitatearekin zerikusia duten gaiak buruzko eztabaidak ez ezik, berba-lagunak azpimarratzen dituen ideiak ere ulertzen ditu. Adierazle linguistiko eta estrategia aukera zabala eta anitza erabiltzen du. Xede-kulturako ohituren arabera jokatu egiten du.

- *Aurkezpena: ideia-, antolaketa- eta garapen-koherentzia.*

Ideiak koherentziaz, argi eta zehatz azaltzen ditu. Gaia ardatz hartzen du eta planteamenduei amaiera ematen die. Zenbait gertaeren garrantzia pertsonala azpimarratzen du. Lanaren arabera ondo antolatutako egitura du. Komunikazio-helburua betetzeko, puntu garrantzitsuei buruzko informazio egokia ematen du.

3. *Hizkuntzaren erabilera: adierazle linguistikoak, kohesioa eta erritmoa.*

Lanera eta mailara egokitutako adierazle linguistikoak erabiltzen ditu. Ahozko aberastasuna eta sormena erakusten du. Horri esker, errepikapenak eta zalantza ekiditen ditu. Egoki ibiltzen da itzulgingurura. Lokailu eta baliabide asko erabiliz lotzen eta kohesionatzen ditu osagaiak. Denbora koherentziaz darabil testu osoan zehar. Naturaltasunez moldatzen da. Erritmo erregularra du. Eten gutxi egiten ditu eta azalpenak gutxitan errepikatzen ditu.

4. *Zuzentasun formala: lexikoa, sintaxia, morfologia, ortografia.*

Ohiko funtzioak betetzeko lexiko zabala menperatzen du. Ohikoak ez diren egoeretan ideia eta egitura konplexuak erabiltzera ausartzen da, nahiz eta ama-hizkuntzaren eta beste hizkuntzen interferentziak agertu. Lexiko alorreko akatsak noizean behin baino ez dira azaltzen eta ez dute komunikazioa desitxuratzen. Ondo ahozkatzen du, nahiz eta ama-hizkuntzaren doinua antzeman. Doinua hizkuntzaren eskemetara egokitzen da.

Idazmena

- Hainbat gai buruzko testu argiak, koherenteak eta kohesiodunak idaztea, lexiko zehatza eta gramatika zuzena erabiliz.
- Hainbat jatorriko informazioa sintetizatzea eta ebaluatzea; gertaerak kontatzea; testu mota eta komunikazio-egoera deskribatzea, arrazoitzea, konparatzea eta ondorioak ateratzea.
- Diskurtsoa malgutasunez eta egoki kohesionatzea, diskurtso-lokailuak eta markagailuak egoki erabiliz.

Ebaluazioa honako **irizpide** hauen arabera egiten da:

Idatzizko adierazpena eta elkarreragina

1. *Komunikazio-eraginkortasuna: etorria eta naturaltasuna du. Lanaren arabera komunikatzen da eta funtzioak betetzen ditu. Badaki zein den errealitate soziolinguistikoa eta hartara egokitzen da.*

Hainbat gairi buruz jarioratasunez idazten du, betiere bere intereseko gaii buruz. Edukia argia da eta funtzioak betetzen ditu. Egoera –formala nahiz informala– ezagutzen du eta hainbat gauzataraz egokitzen da: tratamendura, kortesiara, informazio motara eta informazioaren neurrira, hartzailera eta helburura.

2. *Diskurtsorako gaitasuna: ideia-, antolaketa- eta garapen-koherentzia.*
Ideiak koherenteak, argiak eta zehatzak dira. Gaia ardatz hartzen du eta planteamenduei amaiera ematen die. Ez ditu gauzak errepikatzen. Zenbait gertaeren garrantzia pertsonala azpimarratzen du. Lanaren arabera ondo antolatutako egitura du. Komunikazio-helburua betetzeko, puntu garrantzitsuei buruzko informazio egokia ematen du.
3. *Hizkuntzaren erabilera: adierazle linguistikoak, kohesioa eta erritmoa.*
Lanera eta mailara egokitutako adierazle linguistikoak erabiltzen ditu. Ahozko aberastasuna dela-eta, ez ditu gauzak errepikatzen. Osagaiak lotzeko eta kohesionatzeko, lokailu eta baliabide asko erabiltzen ditu. Puntuazioa egokia da. Osagaiak zehaztasunez berreskuratzen ditu eta denbora koherentziaz darabil testu osoan zehar.
4. *Zuzentasun formala: lexikoa, sintaxia, morfologia, ortografia.*
Etorriz, zehaztasunez eta naturaltasunez adierazteko gaitasun linguistikoak ditu. Funtzioak betetzeko lexiko zabala menperatzen du. Egitura konplexuak erabiltzen ditu eta ez du akats larririk egiten. Akats lexikoak noizean behin baino ez ditu egiten eta ez dute komunikazioa desitxuratzen. Ortografia-akats oso gutxi egiten ditu.

GOI MAILA 2

Ahozko eta idatzizko elkarreragina

- Hainbat motatako solasaldietan, transakzioetan eta eztabaidetan naturaltasunez eta eraginkortasunez elkarreragitea, noizean behin hitz-jarioa erakutsiz. Egoerara egokitutako erregistroa eta kortesia erakutsiko du.
- Solasaldietan, transakzioetan, elkarrizketetan eta eztabaidetan parte hartzea; argi hitz eginez eta ideiak, iritziak, akordioak, argudioak, aholkuak eta informazio konplexua egoki trukatzuz.
- Posta-trukea egitea; berriak eta iritziak egoki kontatuz; gertaeren eta esperientzien garrantzia pertsonala azpimarratuz; eta, egoeraren arabera, sentimenduak eta emozioak adieraziz.

Ahozko ulermena

- Testu luzeak, ondo antolatutakoak eta konplexuak (argumentu eta hizkuntza aldetik) ulertzea. Gaiak zehatzak zein abstraktuak izan daitezke; teknikoak ere bai, baldin eta bere espezializaziokoak badira. Testuak hizkuntza estandarrean sortutakoak izango dira eta abiadura arrunta izango dute.
- Aurreko testuen komunikazio-helburuak, puntu garrantzitsuenak eta xehetasun argigarriak zeintzuk diren jakitea.
- Grabatutako materiala edo hedabideren batek hizkuntza estandarrean emandako materiala ulertzea (dokumentalak, albisteak, eta abar).

Idatzizko ulermena

- Gutunak, jarraibideak, iritzi-artikuluak eta literatura garaikideko testuak irakurtzea, autonomiaz eta abiadura nahiz estiloa helburuetara egokituz. Halaber, jakin egin behar du zeintzuk diren komunikazio-helburuak, oinarriko informazioa, puntu garrantzitsuak eta osagarriak, argumentuaren ildoak, gertaerak, iritziak. Hori guztia erreferentzia-iturri selektiboak erabiliz.

Mintzamena

- Gai orokorreari eta bere espezialitateko gaiari buruzko testuak sortzea, testu antolatutakoak eta koherentziadunak; kontatzeko, deskribatzeko, informatzeko, argi arrazoitzeko, ideiak zabalago azalduz eta defendatuz, eta gauza garrantzitsuak azpimarratuz.
- Diskurtso malgua, zehatza eta zuzena sortzea, ulertzeko arazorik ematen ez duen diskurtsoa. Argi eta naturaltasunez ahoskatuko du. Hitz-jarioa aipagarria izango da, tarte luze eta konplexuetan ere bai.
- Norabide-, estilo- eta enfasi-aldaketetara malgutasunez egokitzea. Hala ere, oraindik zalantzak izan ditzake eta itzulinguruka aritu daiteke.
- Baliabide linguistikoak ia akatsik gabe menperatzea. Dena den, egitura konplexuetan egin dezake akatsen bat noizean behin, komunikazioa oztopatzen ez duen akatsen bat. Gai izango da bere buruari "akats iraunkor" batzuk zuzentzeko.

Ebaluazioa honako **irizpide** hauen arabera egiten da:

Ahozko adierazpena eta elkarreragina

1. *Komunikazio-eraginkortasuna: etorria eta naturaltasuna du hitz egiterakoan. Lanaren arabera komunikatzen da eta funtzioak betetzen ditu. Errealitate soziolinguistikoa ezagutzen du eta hartara egokitzen da.*

Erraztasunez adierazteko gauza da hainbat gairi buruz. Edukia argia da eta funtzioak zehatz betetzen ditu. Gai orokor gehienei buruzko elkarrizketa luzeetan parte hartzen du, nahiz eta ingurua zaratatsua izan. Gertaerei nolabaiteko emozioa ematen die.

2. *Diskurtsoarako gaitasuna: partehartzea eta lankidetzaz; ondo antolatutako, kohesionatutako eta garatutako ideiak eta argumentuak.*

- *Elkarreragina: partehartzea eta lankidetzaz.*

Eguneroko egoeretan bertako hiztunen artean izaten diren eztabaida informalean erritmoa jarraitu dezake eta iruzkinak egiteko gai da. Bere iritzia zehatz adierazten ditu eta iritziei eutsi egiten die. Konbentzitzeko moduko argumentu-ildo konplexuak aurkezten ditu. Azalpenak, argudioak eta iruzkinak ematen ditu. Egoeretara egokitutako formaltasun maila hartzen du. Hizkuntza estandarrez esandakoa ulertzen du, nahiz eta atzeko aldean zarata entzun. Emozioa adierazten du.

- *Aurkezpena: ideia-, antolaketa- eta garapen-koherentzia.*

Gai orokor, -akademiko, -profesional eta aisialdi arloko gai askori buruz hitz-jarioz, eraginkortasunez eta zehatz hitz egiten du. Ideien arteko lotura argi markatzen du. Lokailu eta baliabide asko erabiliz lotzen eta kohesionatzen ditu osagaiak. Gaia ardatz hartzen du eta planteamenduei amaiera ematen die. Diskurtsoak ondo antolatutako egitura du. Puntuei buruzko informazio egokia ematen du eta zenbait gertaeren garrantzia pertsonala azpimarratzen du.

3. *Hizkuntzaren erabilera: adierazle linguistikoak, kohesioa eta erritmoa.*

Gramatika ondo menperatzen du; ez dirudi esaten duena mugatzen duenik. Lanera eta mailara egokitutako baliabide linguistikoak erabiltzen ditu. Ahozko aberastasuna eta sormena dela-eta, zehatza da eta ez ditu gauzak errepikatzen, ez zalantzak agertzen. Itzulinguruak ez zaizkio antzematen. Osagaiak zehaztasunez hartzen ditu eta denborak koherentziaz erabiltzen ditu testu osoan zehar. Naturaltasunez moldatzen da, erritmo erregularra du eta etenak zein birformulazioak ez dira antzematen.

4. *Zuzentasun formala: lexikoa, sintaxia, morfologia, ortografia.*

Lexiko zabala menperatzen du. Gramatika ere ondo menperatzen du; ez dirudi esan nahi duena mugatu behar duenik. Formaltasun maila egoeretara egokitzen du. Ideia eta egitura konplexuak erabiltzen ditu beretzat hain ohikoak ez diren egoeretan. Ama-hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen interferentziaren bat izan dezake. Ondo ahoskatu arren, ama-hizkuntzaren doinua antzematen zaio. Doinua hizkuntzaren eskemetara egokitzen da.

Idatzizko adierazpena

- Hainbat gairi buruzko testu argiak, zehatzak, koherenteak eta kohesiodunak idaztea; xehetasun handiz, lexiko aberatsez eta gramatika zuzenaz.
- Hainbat jatorriko informazioa sintetizatzea eta ebaluatzea; gertaerak kontatzea; testu mota eta komunikazio-egoera deskribatzea, arrazoitzea, konparatzea eta ondorioak ateratzea.
- Baliabide linguistiko ugari erabiltzea, sintaxi konplexua eta testu-gramatika ere erabiliz. Helburua da egoera eta gai askori buruzko testu zehatzak, argiak eta kohesiodunak sortzea, mugak antzeman gabe.

Idatzizko adierazpena eta elkarreragina

1. *Komunikazio-eraginkortasuna: etorria eta naturaltasuna du hitz egiterakoan. Lanaren arabera komunikatzen da eta funtzioak betetzen ditu. Badaki zein den errealitate soziolinguistikoa eta hartara egokitzen da.*

Hainbat gairi buruz jarioz idazten du, betiere bere intereseko gai buruz. Gaiak abstraktuak eta konplexuak izan daitezke. Edukia argia da eta funtzioak betetzen ditu. Egoera –formala nahiz informala– ezagutzen du eta hainbat gauzataraz egokitzen da: tratamendura, kortesiara, informazio motara eta informazioaren neurrira, hartzailera eta helburura.

2. *Diskurtzorako gaitasuna: ondo antolatutako, kohesionatutako eta garatutako ideiak eta argumentuak.*

Ideiak koherenteak, argiak eta zehatzak dira. Gaia ardatz hartzen du eta planteamenduei amaiera ematen die. Ez ditu gauzak errepikatzen. Zenbait gertaeren garrantzia pertsonala azpimarratzen du. Lanaren arabera ondo antolatutako egitura du. Komunikazio-helburua betetzeko, puntu garrantzitsuei buruzko informazio egokia ematen du.

3. *Hizkuntzaren erabilera: adierazle linguistikoak, kohesioa eta erritmoa.*

Hizkuntza ondo menperatzen duenez, ez du gaizki-ulerturik izaten. Lanera eta mailara egokitutako adierazle linguistiko asko erabiltzen ditu. Lexiko aberatsari esker, zehatza da eta ez ditu gauzak errepikatzen. Osagaiak lotzeko eta kohesionatzeko lokailu eta baliabide asko erabiltzen ditu. Puntuazioa egokia da. Osagaiak zehaztasunez hartzen ditu eta denbora koherentziaz darabil testu osoan zehar.

4. *Zuzentasun formala: lexikoa, sintaxia, morfologia, ortografia.*

Baliabide linguistikoak esker, arrazoiak eta xehetasunak erabiltzen ditu idatziz adierazterakoan. Egitura konplexuak darabiltza eta ia ez du akatsik egiten. Lexiko zabala du funtzioak betetzeko. Akats lexikoak noizean behin baino ez ditu egiten eta ez dute komunikazioa desitxuratzen. Ortografia-akats oso gutxi egiten ditu.

OHARRA:

AZTERKETA ETA PROBA EREDUAK

EUSKARA GOI MAILA (B2)

Azterketaren egituraren eta ezaugarrien deskribapena eta proba, ariketa eta ataza ereduak honako web orri hauetan egongo dira eskuragarri martxoan:

www.eoidurango.net

www.eoieuskadi.net